



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko martxoaren 27a

46. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Legea, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekin-tzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duena. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Batzordeak onetsitako iriz-pena (16. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko martxoaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzkoa".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2019ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzkoa

ATARIKOA

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak indarra hartu zuenetik hasierako hilabeteak joan diren honetan, testua tekniko ki hobetzeko zenbait premia hauteman dira, baita zuzentzeko moduko zenbait akats ere.

Zehazki, aldaketa honen alderdirik nabarmenak dira kontratuak formalizatzeari buruzko aurreikuspenetan sartzea honako hauek: lizitazio deialdirik gabe negoziatutako prozeduretan espedienteari hasiera emateko ebazpena kentzea; formula bidez ezin zenbatetsi diren irizpideak irekitzeko ekitaldiaren izaera publikoa kentzea; eta aldaketa batzuk egitea Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren funtzionamenduan eta kontratazioaren arloko erreklamazio berezian, zehazki erreklamazioa aurkezteko legitimazioa zabaltzea toki-korporazioetan akordioen kontra bozkatu duten kideei, garraio zerbitzuen kontzesiorako kontratuak sartzea erreklamazioen xede izan daitezkeen artean, eta administrazioaren isiltasunaren ondorioak arautzea entitate kontratatzaileari dagokionez.

Kontratuaren formalizazioari dagokionez, apartatu berriak sartu dira 101. artikuluan arlo horretan zegoen hutsune bat betetzeko, jatorrizko testuak hainbat aldiz aipatzen baitzuen kontratuaren formalizazioa, baina ez baitzuen, ordea, berariazko arauketarik xedatzen.

Lizitazio deialdirik gabe negoziatutako prozeduretan, espedienteari hasiera emateko ebazpena kentzen da, karga administratibo bat delako eta, prozeduraren izaera ikusita, ez duelako baliorik eranstean eta ez dituelako lizitatzailen interesak eta eskubideak ukitzen.

Bestetik, jada ez da esaten jendaurrekoa izanen dela formula bidez zenbatesten ahal diren irizpideak irekitzeko ekitaldia, zeren 2018ko urriaren 18az geroztik modu elektronikoa lizitatu beharra dago Nafarroako Lizitazio Elektronikoaren Plataformaren bitartez. Plataforma horrek bermatzen du eskaintzak sekretupean daudela harik eta formula bidez zenbatetsi ezin diren irizpideen balorazioa bukatu arte, halako moldez non bermatzen baita balorazio hori egiten dutenen independentzia eta, orobat, zuzen aplikatuko direla kontratazio publikoaren printzipioak, batez ere berdintasun-printzipioa. Hala ere, gardentasuna funtsezkoa denez kontratazio publikoaren sistema zuzenago bat lortzeko, informazio horren izaera publikoari eutsi zaio.

Aldatu diren gainerako artikuluetan, berriz, akats materialak zuzendu dira, eta azalpen edo zehaztapen teknikoak gehitu.

Artikulu bakarra. Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aldatzea.

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeari aldaketa hauek egiten zaizkio:

Bat. 7.1.b) artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“b) Zerbitzu publiko bat ematean ezartzen diren harreman juridikoak, zerbitzu publikoa ematen duen Administrazioaren edo kontratistaren eta zerbitzua baliatzeko ordaintzen duten erabiltzaileen artean, aplikazio orokorreko tarifa, tasa edo prezio publiko bat ordaindu behar dutenean”.

Bi. 7.1.g) artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“g) Merkataritza-aurreko izaera duten zerbitzuetarako kontratuak. Horretarako, CPV 73000000-2 a, 73120000-9, 73300000-5, 73420000-2 eta 73430000-5 kodeak egonen dira sartuta, salbu eta bi baldintza hauek betetzen badira:

1. Etekinak kontratazio organoarenak beste inorenak ez izatea, bere jardueran aritzeko erabiltzekoak.

2. Emandako zerbitzua kontratazio organoak ordaintzea osotara”.

Hiru. 8.6. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“6. Nahitaez bete beharreko aginduen bidez mamituko dira enkarguak, eta betiere adjudikazio botereari dagokio behar bezala exekutatzeko direla gainbegiratzea.

Enkargua egiten duen adjudikazio botereak ordaindu beharreko zenbatekoa ez da handiagoa izanen hura exekutatzeko beharrezkoak diren kostu errealean itzulketa baino.

Baldin enkarguen balioa zenbateko txikiko kontratuetarako araubide bereziraiko ezarritako balioetik gorakoa bada, haiek egiteko agindua Kontratazio Atarian argitaratuko da, labor azalduta agindua justifikatzen duten egitatezko inguruabarrak eta zuzenbideko oinarriak, eta enkarguak ez dira exekutatzeko hasiko iragarkia argitara eman eta hamar egun natural iragan baino lehen.

Enkarguaren zenbatekoa Europako gutxienekoa baino handiagoa denean, hura egiteko agindua Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean ere argitaratu beharko da, eredu ofizialen arabera, onetsi eta berrogeita zortzi eguneko gehieneko epean”.

Lau. 13.1. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“1. Kontratazio organoek aldi baterako enpresa-elkarteekin edo batera parte hartzen duten lizitatzailerekin kontratatzen ahalko dute. Parte-hartze horretarako agiri pribatu bat egin behar da;

bertain, lizitatzailerekin batera aurkeztu nahi dutela adierazi, lizitatzailerekin bakoitzaren partaidetza porzentajea zehaztu, eta ordezkari edo ahalguztari bakarria izendatu beharko dute, kontratuak sortzen dituen eskubideak erabili eta betebeharrak beteitzeko ahalmenak izanen dituen hura azkendu arte; horrek ez du eragotziko kobratu edo ordaintzeko ahalmen mankomunatuak izatea”.

Bost. 14.4. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“4. Zerbitzu kontratuak adjudikatzeko prozeduratan, lizitatzailerekin beren jatorrizko herrialdean dena delako zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat edo erakunderen bateko kide izan behar duten kasuetan, baimen hori badutela edo erakunde horretako kide badirela frogatzeko eskatzen ahalko zaie”.

Sei. 17.2.a) artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“a) Gehienez ere azken bost urteetan egindako obren zerrenda. Berme gisa, obra garrantzitsuenak behar bezala exekutatu direla dioten ziurtagiriak erantsiko dira, eta horietan datu hauek ageriko dira: obra-exekuzioaren zenbatekoa, data eta lekua, adierazita lanbidearen arauari jarraituz egina den, gorabeherarik gabe eta ongi buruturik. Adjudikazio botereek kontuan hartu ahalko dituzte aurreko aldietan eginitako obren frogak, horrela jokatzeko komenigarri egiten duten inguruabarrak aurretiaz justifikatzen badira”.

Zazpi. 23.2. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“2. Apartatu bereko c), d), e), f), g) eta h) letretan ezarrita dauden kontratatzeko debekuak dautela automatikoki xedatuko dute kontratazio organoek, eta debeku horiek iraunen dute haien zio diren egoerak dirauten bitartean”.

Zortzi. 24.5. artikuluari bigarren paragrafo bat gehitzen zaio, eta testu hau izanen du:

“Kontratazioarako Batzordeak edozein bidetatik jakiten badu kontratazio-debekurako ziorik egon daitekeela, espedientearen abiarazi ahalko du, ofizioz, eta ukitutako entitateari edo entitateei lankidetzara eskatu, espedientearen instrukzioarako beharrezkoa dena”.

Bederatzi. 34. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“34. artikulua. Kontratuen araubide juridikoa.

1. Administrazio publikoek egiten dituzten kontratuen araubide juridikoak izaera administratiboa

izanen du, non eta legeak ez duen besterik xedatzen.

Kontratu horiek arautuko dira, haien prestaketari, adjudikazioari, ondorioei eta azkentzeari dagokienez, foru lege honen xedapenen eta erregelamenduen bidez. Osagarri gisa, administrazio zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horrelakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Kontratazio organoak du kontratuak interpretatzeko, betetzean sortzen diren zalantzak ebazteko, suntsiaraztea erabakitzeke eta horren ondorioak zehazteko prerrogatiba. Prerrogatiba horiek erabiliz hartzen diren erabakiei erreklamazioa edo errekurtsioa aurkezten ahalko zaie, foru lege honetan eta administrazio zuzenbideko gainerako arauetan xedatutakoarekin bat.

Administrazioaren kontratu pribatuak arautuko dira, haien prestaketari eta adjudikazioari dagokienez, eta berariazko administrazio araurik ezean, foru lege honen eta bera garatzen duten xedapenen bidez; eta, haien efektuei eta azkentzeari dagokienez, berriz, zuzenbide pribatuko arauen bidez.

Ondareari buruzko legeriak arautuko ditu jabari publikoko ondasunen gaineko baimenak eta kontzesioak eta ondare-ondasunak ustiatzeko kontratuak, baita salerosketa, dohaintza, errentamendu eta trukaketa kontratuak eta ondasun higiezin, jabetza gorpuzgabeen eta balore negoziagarrien gaineko antzeko negozio juridikoen kontratuak ere. Espainiako Ondare Historikoko ondasunen eskuraketak ere ondare legeriaren bidez arautuko dira.

2. Administrazio publikoaren izaerarik ez duten adjudikazio botereek egiten dituzten kontratuen araubide juridikoa honako hau izanen da:

a) Kontratuen prestaketari eta adjudikazioari dagokienez, kontratuak foru lege honen bidez arautuko dira.

b) Ondorioei eta azkentzeari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko zaizkie, salbuespena izanik foru lege honetan exekuzio-, aldatze- eta azpikontratate-baldintza berezietan buruz ezarritakoa.

3. Adjudikazio botere izan gabe foru lege honen 5. artikuluan arabera beren xedarengatik foru lege honen mende dauden entitateek egindako kontratuen araubide juridikoa izanen da artikuluan honen 2. apartatuan ezartzen dena.

4. Adjudikazio boterearen izaerarik ez duten gainerako entitate publikoek egindako kontratuetan printzipio hauek errespetatu beharko dira: ber-

dintasuna, diskriminaziorik eza, gardentasuna, publizitatea eta lehia librea.

5. Baldin eta 4.1 e) artikuluan zentzuan administrazio publikoei lotuak edo haien mende-koak diren entitateek eginiko jarduerak badira, eta foru lege honen xedapenen mende-koak, administrazio-bidean aurkaratzen ahalko dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoari jarraituz, entitate kontratatzailea atxikita dagoen edota haren zaintza dagokion departamentu, organo, ente edo erakundearen titularraren aurrean. Entitate kontratatzailea administrazio bati baino gehiagori lotuta badago, organo eskuduna izanen da kontrola edo partaidetzaren gehiengo duena”.

Hamar. 51.1.e) artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“e) Eskaintza ekonomikoak irekitzea eta ekitaldi horretan gertatzen diren gorabeherak ebaztea”.

Hamaika. 59.2.f) artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantz:

“f) Aldaketak egitea erabakitzen bada, horien kasuak, norainokoa eta mugak, berariaz adierazita gehienez ere uki dezaketen adjudikazio-zenbatekoaren gaineko portzentajea, eta egiaz exekutatu-tako unitate kopurua aldatzeko ahalmena erabiltzeko aukera –foru lege honen 144. artikuluan arautua da ahalmen hori–, eta haien portzentajea”.

Hamabi. 60.2.a) artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“a) Foru lege honen 61. artikuluan jasotako zehaztapenei erreferentzia eginez, adierazitako lehentasun-ordena berean, «edo baliokidea» aipamena gehituta”.

Hamahiru. 73.1. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“1. Prozedura murriztuan edozein enpresak edo profesionalek eskatzen ahal du prozeduran parte hartzea, baina kontratazio organoak hautatzen dituen enpresa edo profesionali bakarrik eginen zaie gonbidapena eskaintza aurkezteko”.

Hamalau. 95.2 artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“2. Kontratu publikoak zenbateko txikiko kontratuen araubide berezia eta foru lege honen 75.1.c) artikuluko kasuetako bat ez den beste prozedura batez adjudikatu behar direnean, horien lizitazioa Nafarroako lizitazio elektronikoaren plataformaren bidez eginen da”.

Hamabost. 95.3. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"3. Nafarroako lizitazio elektronikoen plataforman aurkeztuko da abian diren lizitazioei dagoen dokumentazio guztia, dokumentazioa ireki arteko konfidentzialtasun-bermearekin; horrez gain, kontratazio organoarekin harremanetan jartzeko modua egonen da, hark eskaintzari buruz eskatutako zuzenketak edo argibideak egite aldera, eta eskaintzak irekiko dira, prozedurak horretara behartzen duenean. Kontratazio publikoko ondorio guztietarako, tankeratuko da foru lege honen aplikaziopean dauden entitate guztien egoitza elektronikoa bezala eta erregistro laguntzaile bezala".

Hamasei. 97. artikulua izenburua eta 4. apartatua aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

"97. artikulua. Eskaintzak irekitzea eta baloraztea".

"4. Balorazio hori egin eta gero, edo onartutako eskaintzak aztertuta, Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratuko dira, gutxienez hiru egun lehenago, formula bidez zenbatesten ahal diren irizpideei buruzko dokumentazioa jendaurrean irekitzeko tokia, eguna eta ordua. Eskaintzaren zati hori isilpean gorde behar da Kontratazio Atarian adierazitako unea arte. Behin dokumentazioa irekita, jendaurrean jarriko da pertsona lizitatuak bakoitzak formula bidez zenbatetsi ezin diren irizpideen balorazioan lortutako puntuazioa, bai eta aurkeztutako eskaintzak formula bidez zenbatesten ahal diren irizpideetan lortutakoa ere".

Hamazazpi. 100.1. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"1. Kontratazio organoak hilabeteko gehieneko epean adjudikatuko du kontratua eskaintza ekonomikoa irekitzeko ekitalditik hasita, non ez den beste epe bat ezarri agirietan.

Epe horietan adjudikazioa ematen ez bada, lizitazioan parte hartzeko onartutako enpresek beren proposamenak bertan behera uzten ahalko dituzte inolako zigorrik jaso gabe".

Hemezortzi. 101. artikuluarik 6., 7., 8. eta 9. apartatuak gehitzen zaizkio, testu hau dutenak:

"6. Kontratuak agiri administratiboan formalizatuko dira 15 egun naturaleko epean, esleipenaren etenaldia amaitzen denetik aurrera. Administrazio agirian formalizatutako kontratuak edozein erregistro publikotan sarrera izateko aski titulu izanen dira.

7. Kontratistari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua behar den epean formaliza-

tzen ez bada, kontratazio organoak bi aukera izanen ditu: kontratua suntsiaraztea, interesdunari entzun ondoren, eta lizitaziorako jarritako bermeak atxikitzea edo interesdunari penalizazioa ezartzea, kontratuaren balio zenbatetsiaren ehuneko 5ekoa hain zuzen, eta kalte-ordain osagarria eskatzea portzentaje horren gainera eragindako kalte eta galerengatik; edo beste epe bat ematea, luzaezina, kontratuaren exekuzioa atzeratzen den kasuetarako kontratazioa arautzeko agirietan aurreikusitako penalizazio araubidea aplikatuta.

8. Kontratua behar zen epean formalizatu ez izanaren arrazoiak Administrazioari egozten ahal bazaizkio, kontratistak kontratua suntsiarazteko eta dagokion kalte-ordaina emateko eskatu ahalko du.

9. Kontratua formalizatu arte ezin izanen da kontratuaren gauzatzea hasi, ezertan ukatu gabe larrialdiko kontrataziorako, presaz izapidetzen diren kontratueterako eta faktura izan ezik beste agiririk eskatzen ez den prozeduretarako aurreikusitakoa".

Hemeretzi. 121.2. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"2. Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak buru bat eta beste bi kide izanen ditu, hirurak Foru Komunitateko Administrazioaren, Nafarroako toki entitateen edo foru lege honen menpeko beste entitate batzuen zerbitzuko jarduneko funtzionarioak, beren izendapenerako zuzenbideko lizentziaduna edo graduduna izatea eskatu bazitzaie; haien hautapena Nafarroako Gobernuak eginen du, Kontratazio Publikorako Batzordeak igorritako proposamenarekin bat, Toki Araubideko Foru Batzordeak txostena egin ondoren. Hautapena sei urterako izanen da, eta kideok ezin izanen dute berriz hautatuak izan. Epe horretarako ordezkioak ere hautatzen ahalko dira, kargua hutsik dagoenerako, edo titularra kanpoan edo eri dagoen kasuetarako. Epaimahaibururik ez badago, hura falta bada edo eri badago, haren ordezkio arituko da antzinatean handiena duen epaimahaikide titularra, eta adinean zaharrena, hurrenkera horretan. Nafarroako Parlamentuari izendapenaren berri emanen zaio".

Hogei. 123. artikuluarik 3. apartatua gehitzen zaio, eta testu hau izanen du:

"3. Nafarroako toki entitateetako kideek zilegi dute erreklamazio berezia aurkeztea aurkaratutako egintza eta akordioek kontra bozkatu badute, hala xedatzen baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 63. artikulua".

Hogeita bat. 124.2.a) artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“a) Iragarki bat eta haren dokumentazioa aurkaratzeko epea hasiko da lizitazio iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik; edo, han argitaratzea beharrezkoa ez denean, iragarkia Nafarroako Kontratazioaren Atarian agertu eta biharamunetik; edo esleipenaren iragarkia argitaratu eta biharamunetik, beharrezkoa ez denean lizitazio iragarkia argitaratzerik”.

Hogeita bi. 125.4. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"4. Kautelazko neurriak edozein unetan eten, aldatu edo errebotatzen ahalko dira, ofizioz edo alderdi interesdunek eskatuta, horretarako oinarri hartuz gerora gertatu diren edo neurriak hartu zirenean ezagun ez ziren inguruabarrak, salbu eta foru lege honen 124.4 artikuluan adierazitako etenduran, kasu horretan xedapen horri berari jarraituko baitzaio. Ebazpen horren kontra ez da errekurtsorik onartuko, deusetan galarazi gabe bidezko diren errekurtsioak jarri ahal izatea prozedura nagusian ematen diren ebazpenen kontra".

Hogeita hiru. 127.1. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"1. Erreklamazioari buruzko ebazpena hogeit egun balioduneko epean emanen da, hura aurkezten denetik hasita. Epe hori iraganik ebazpen espresurik jakinarazi ez bada, interesdunak ulertzen ahalko du erreklamazio berezia ezetsi egin dela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkezteari begira, eta, entitate kontratatzailearen kasuan, espedientearen tramitazioarekin jarraitzearen ondorioetarako, eta, behar denean, kontratua betearaztearen ondorioetarako”.

Hogeita lau. 138.4. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"4. Kontratazio espedientearen osaturik, kontratazio organoak ebazpen arrazoitua emanen du hura onesteko eta adjudikazio prozedurari hasiera emateko, salbu eta prozedura erraztuan, lizitazio deialdirik gabeko prozedura negoziatuan eta zenbateko txikiko kontratuetarako prozedura berezian. Ebazpen horretan gasturako baimena ere jasoko da”.

Hogeita bost. 169.3 artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"3. Obrak egin bitartean eta berme-epea bete arte, kontratista izanen da eraikuntzan atzemandako akats guztien erantzule”.

Hogeita sei. Bederatzigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"2. 4.1.e) artikulua aipatzen dituen entitateek baimena eskatu beharko diote tutoretza egiten duen Administrazioari, BEZik gabeko balio zenbatetsia 3.000.000 euro baino gehiagokoa duten kontratuak onesteko, bai eta urte anitzekoak direnetarako ere, xedapen honen 1.b) apartatuan aurreikusitako baldintza berberetan”.

Hogeita zazpi. Hamahirugarren xedapen gehigarria aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"1. Foru lege honetan zerbitzuen emakidetakoa iraupenaz xedatutakoak ez dira aplikatuko bidaiarien garraio-zerbitzuen emakidetan 1370/2007 (EE) Erregelamenduan jaso bezala, emakida horien epea haien araudi berariazkoak zuzenduko baitu.

2. Kontratazio publikoaren arloan erreklamazio bereziaren xede izan daitezke, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegian, foru lege honen 122. artikulua 2. apartatuan zerrendatutako egintzak, jorratzen dituztenak bidaiarien garraio publikoko kontzesioak, 1370/2007 (EE) Erregelamenduen ildotik”.

Hogeita zortzi. Hemeretzigarren xedapen gehigarri bat gehitzen da, eta testu hau izanen du:

“Hemeretzigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiko kideen izendapena.

Foru legearen 121.2 artikuluan aurreikusten da Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiko burua eta beste bi kideak ezin direla berriz hautatu, baina hori aplikatuko da bakarrik Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak indarra hartu ondotik egindako izendapenetan, eta espresuki jaso beharko da izendapenaren ekintzan”.

Hogeita bederatzia. Hogeigarren xedapen gehigarri bat gehitzen da, eta testu hau izanen du:

"Hogeigarren xedapen gehigarria. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Espainiako Sistemako eragile publikoek egindako kontratuei aplikatzekoa zaien araubidea.

Bere jardueraren izaera berezia ikusita, zenbateko txikiko kontratuetzat joko dira, edozein kasutan ere, 50.000 euroko edo gutxiagoko balio zenbatetsia duten hornidura edo zerbitzu kontratuak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Espainiako Sistemako eragile publikoek egindakoak, baldin eta kontratazio organoaren zerbitzu orokorretara edo azpiegiturretako zerbitzuetara bideratzen ez badira.

Ondorio horietarako, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Espainiako Sistemako eragile publikoen artean sartzen dira, Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legeak ezarri bezala, honako hauek: unibertsitate publikoak, ikerketa-erakunde publikoak, fundazioak, partzuergoak eta Estatuko Administrazio Orokorreko gainerako exekuzioko eragileak, aurrekoen gisako ikerketa-erakunde eta entitateak, beste administrazio publikoen menpekoak direnak, ikerketa biomedikorako fundazioak, eta Osasun Sistema Nazionaleko zentro, erakunde eta partzuergoak”.

Azken xedapenetako lehenbizikoa. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzeko maiatzaren 17ko 7/2018 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzeko maiatzaren 17ko 7/2018 Foru Legearen 33. artikuluari 9. apartatu berri bat gehitu zaio, eta testu hau izanen du:

“9. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoko zuzendariaren urteko ordainsaria izanen da Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Departamentuen zuzendaritza nagusietarako finkatzen den berbera”.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko martxoaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2019ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa

ATARIKOA

Azken urteetan, aurrerapauso nabarmenak eman dira gure historiako zenbait gertakari tragikotako biktimei ordaina eta errekonozimendua ematearen arloan, motibazio politikoko indarkeria-eta terrorismo-ekintzei dagokienez.

Estatuko legegintzaren esparruan, azpimarratzekoa da abenduaren 26ko 52/2007 Legea, "Memoria Historikoaren Legea" izenaz ezagunagoa, zeinaren bidez onartzen eta zabaltzen baitira gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak eta haien aldeko neurriak ezartzen baitira. Lege horrekin, partzialki eta behar baino beranduago onbideratze bat eman zitzaion amaigabeko lazeriak eta umiliazioak pairatutako frankismoaren biktimenganako urtetako ahanztura instituzionalari. Zioen azalpean diogen bezala, "legeak oinarriak jartzen ditu botere publikoek aurrera eramane dituzten gure historia ezagutzera eta memoria demokratikoa

sustatzera zuzendutako politika publikoak". Azaroaren 3ko 1803/2008 Errege Dekretuak baldintzak eta prozedura arautzen ditu demokrazia aldeztu eta garatzeko jardueragatik hildakoentzat edo ezgaitzerainoko lesioak jasan zituztenentzat 52/2007 Legean aitortutako kalte-ordainak ordaintzeko, eta ebaluazio batzorde bat sortzen du, zeinak ahalmena izanen baitu beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak ofizioz egiteko, alegatutako gertaerak edo datuak egiaztatzekoak, gertaera eragileak argitzearen eta eskatutako errekonozimendua eta erreparazioarako aukera eman dezakeen kausazko lotura zehazten laguntzeko. Batzorde horri dagokio horri buruz egiten diren eskabideak izapidetzea, bai eta haien aztertu, baloratu eta ebatzea ere.

Geroztik, Terrorismoaren Biktimak Aintzatetsi eta haien Osoko Babesa emateko irailaren 22ko 29/2011 Legeak babes sozial, ekonomiko eta politikoa eman zien erakunde terroristen indarkeriak eragindako biktimei; erakunde horien artean ETA, GAL eta BVE daude, besteak beste. Iraganean, biktima horiek ez dute errekonozimendua sozial beharrezkoa jaso, eta kasu honetan, haien memoriari duintasuna eman beharra zegoen. Lege honek aukera bat biltzen du Administrazioaren organo eskudunaren aurrean honako hauek egiaztatzeko, zuzenbidean onartzekoa den edozein frogabaliabide erabiliz: biktima- edo eskubidedun-izaera, pairatutako kalteen norainokoa, egintza zein egitate eragileen izaera eta lege eskatutako gainerako betekizunak.

Nafarroan ere, motibazio politikoko indarkeriak eragindako kalteari ahal den guztian erreparazioa emateko araugintzazko ahalegin bat egin da, bi lege garrantzitsu onetsiz.

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legeak antolatu eta artikulatu zuen Nafarroako administrazioek nola garatu

behar duten terrorismoaren biktimekiko tratamendua, horretarako mekanismo ekonomiko eta sozial batzuk ezarriz, eta halatan babestuz biktima horiek dauzkaten eskubideak. Foru lege horren 5. artikulua ezarri zuen ezen legean xedatutakora biltzeko baldintza dela aipagai dituen eragindako kalteak ekintza terrorista baten ondorio izatea. Baldintza horren betetzea epai batek edo Estatuko segurtasun indar eta kidegoek baieztatu ahal dute, edo, bestela, administrazio eskudunaren ebazpen batek, non kalifikazio hori berariaz ezartzen den.

Bestetik, azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legeak, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoak, zuzendu egin zuen Nafarroan balio errepublikano eta demokratikoak aldezteagatik eraildako 3.400 pertsona baino gehiagorenganako urtetako ahanztura ofizial barkaezina, eta aitzindaria izan zen Espainiako Estatuan.

Honetara ezker, halaber interesgarria da ikustea nazioartean egin diren zenbait xedapen, Nazio Batuen esparru aldeaniztunean lortutako itun eta akordio handietatik hasita. Hasteko, 1948ko Giza Eskubideen Adierazpena eta haren geroko garapen guztiak (Eskubideen Itunak, esate baterako) goraiatu nahi ditugu, horiek baitira ekimen honek bere sustraian duen Nazioarteko Zuzenbide Publikoko iturria. Ezin dugu aurrera egin biktimen errekonozimenduan eta, horrenbestez, demokrazian sakontzen, planeta osoko pertsona guztien giza eskubideen oinarriak jartzen dituen lehenengo itun kolektibo hori goraiatu gabe.

Bestalde, oso berriki sortu den akordio bat ere aipatu nahi dugu, Garapen Jasangarrirako 2030eko Agenda deitutakoa, orain dela hiru urte eskas, 2015eko irailean, Nazio Batuen esparruan sinatutakoa. Eta, zehazki, honako honen lorpena: "16. Helburua: Bakea, Justizia eta Erakunde Indartsuak", zeinaren helburua baita zuzentasunezko gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea. Gure ustez, helburu hori ezin izanen da lortu baldin eta biktimak direla-eta beharrezkoa den memoria-, errekonozimendu- eta erreparazio-jardun bat egiten ez bada gatazka egoerak gertatu diren tokietan.

Halaber, Europako Kontseiluaren 1983ko azaroaren 24ko 116. Hitzarmena aipatu beharra dago, Indarkeria-delituen biktimei kalte-ordaina emateari buruzkoa, zeina 2001eko urriaren 31n berretsi baitzuen Espainiak. Hitzarmen horretan jasotzen denez, "...kalte-ordain hori eman egingen da baita egilea jazartzerik eta zigortzerik ez dagoenean ere". Europar Batasunaren baitan, nabarmentzekoa da, halaber, Kontseiluaren apiri-

laren 29ko 2004/80/EE Zuzentaraua, zeinak estatu kideei ezartzen baitie kalte-ordainen araubide bat eduki behar dutela indarkeria-delituen biktimez, agintari publiko edo erakunde eskudunak izendatuta eta kasuko prozedura administratiboak diseinatuta.

Halaber, NBEk gomendio-tresna batzuk garatu ditu, estatuen jarduketarako orientabide moduan. Adibidez, haren Giza Eskubideen Kontseiluak, 2008ko irailaren 24an, 9/11 Ebazpena onetsi zuen, Egiarako Eskubideari buruzkoa, non aitortzen baitu zeinen garrantzitsua den egiarako eskubidea errespetatu eta bermatzea, giza eskubideak sustatzen eta babesten laguntzeko. Harekin, pozez hartzen da zenbait estatutan mekanismo ez-judizialak sortzea, nola baitira egiarako eta adiskidetzarako batzordeak, sistema judizialaren osagarri direnak, giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketak ikertzeko; halaber, beste estatu batzuei adore ematen zaie antzeko mekanismoak sor ditzaten.

Hori baino lehenago, 2005eko abenduaren 16ko 60/147 Ebazpenaren bidez, Nazio Batuen Batzar Nagusiak "Oinarrizko printzipio eta jarraibideak, giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urraketen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekurtsoak aurkeztu eta erreparazioak lortzeko duten eskubideari buruzkoak" onetsi zituen. Agiri horrek bide administratibo publikoen mekanismoa aurreikusten du pairatutako kalteengatik lehengoratzarako, erreparaziorako, errehabilitaziorako eta satisfaziorako. Bada, indarkeria- eta terrorismo-delituen biktimei ahal den guztian errekonozimendua eta erreparazioa emateko diseinatu eta ezarritako nazioarte-, estatu-, autonomia- eta foru-mailetakoa arauen multzo horren esparruan, motibazio politikoen eta horren osagarri, beharrezkotzat jotzen da orain Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko Foru Lege hau onestea, beraren bidez babesa emate aldera giza eskubideen urraketen biktima izandako pertsona-multzo bati, zeinak orain arteko legerian ez baitzuen tokirik. Horrela, arau honen bidez, prozedura administratibo bat ezartzen da, bere aplikazio-eremuko biktimen errekonozimendurako eta erreparaziorako neurri administratiboak hartze aldera. Zentzu horretan, garrantzitsua da aipatzea ezen foru lege honek ez duela, inolaz ere, zigor-xederik, eta berme osoz errespetatzen duela abstentzioaren, konkurrentziaren eta ebazpen judizialekiko loturaren betebeharra.

Egiarako eskubidea, foru lege honetan tankeratzen den bezala, oinarrituta dago espediente administratiboak ebazteko lagungarri gertatzen diren eta motibazio politikoko ekintzen bitarteko giza eskubideen urraketaren biktimentzako errekonozimendua eta erreparazioa errazten duten egitateen ezagutza, dokumentazio eta zehaztapenean.

Azaldutako guztian oinarrituta, foru lege honek zuzendu eta ordeztu egiten du Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legea, zeina indargabetuta geratuko baita arau honek indarra hartzen duenean.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

1. Foru lege honen helburua da eskuin muturreko taldeen edo funtzionario publikoen indarkeriazko jardunak eragindako motibazio politikoko biktimen errekonozimendurako eta, kasua bada, erreparaziorako eskubidea tankeratzea, baliabideak eta mekanismoak arautuz halako biktimatza aitortuak izan daitezzen eta, kasua bada, errekonozimendurako eta erreparazio integralerako kasuko eskubideen onuraduntzat.

2. Foru lege hau kokatuta dago motibazio politikoko indarkeriaren biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emate aldera taxutu eta ezarritako nazioarte-, Estatu- eta autonomia- eta foru-mailetako arau-multzo baten esparruan. Xede horrekin, prozedura administratibo bat ezartzen da, foru legearen aplikazio-esparru subjektiboan dauden pertsonen babesa emanen dieten neurri administratiboak hartzeko.

2. artikulua. Ereku subjektiboa.

Foru lege honen esparru subjektiboa osatzen dute beren giza eskubideak honako inguruabar hauetan eta honako ondorio hauekin urratu zaizkien pertsonak:

a) Urraketak zio politikoko indarkeria-testuinguru batean gertatu badira.

b) Urraketak zio politikoko jarduketa-testuinguru batean gertatu behar badira, taldean nahiz modu isolatuan eta kontrolik gabekoan jardun duten funtzionario publikoek edo partikularrek esku hartuta.

c) Giza eskubideen urraketaren ondorioz pertsonen biziari edo integritate fisiko, psikiko, moral, sexual edo materialari kalte bat egin bazaio.

Baldin eta pertsona baten giza eskubideen urraketaren ondorio zuzena izan bada haren heriotza, biktima izatearen aitortpena eskatzeko eskubidea eta ezar litekeen konpentsazio ekonomikoa baliatzeko eskubidea izanen dute haren kausadunek, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

Foru lege honen aplikaziotik berriaz at gelditzen dira indarkeriazko jardueraren bat egiteko xedez armak edo lehergaiak manipulatzeko hildakoek edo zauritutakoek, baita manipulazio horren bidez bilatzen zena baldin bazen segurtasun kidegoen eta indarren jarduketa legitimoen aurre egitea edo ekiditea ere.

3. artikulua. Iraunaldia.

Foru lege honen asmoa da bertan zehaztutako motibazio politikoko biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematea, baldin eta horien kausa izan badira edo izan ahal badira 1950eko urtarrilaren 1etik aurrera gertatutako ekintzak.

4. artikulua. Lurralde-esparrua.

Foru lege hau aplikatuko zaie foru legearen beraren esparru subjektiboaren barrinean egonik kalteak Nafarroan pairatu dituzten pertsona fisiko- edo, nafar izaera politikoa izanda, kalteak Nafarroako Foru Komunitateko lurraldetik kanpo pairatu dituzten pertsona fisiko- edo, kalte horiei Estatuko edo beste autonomia erkidego bateko erakundeek erreparaziorik eman ez dieten heinean.

5. artikulua. Jarduteko printzipioak.

1. Erakundearteko lankidetzaren printzipioa, halako moduz non erakunde eta entitate publikoek eskatzen zaizkien datu guztiak emanen baitituzte behar den garaian eta moduan, eta espedienteak ebazteko behar den lankidetzaren erraztuko baitute, hala agintariena nola beren zerbitzuko teknikarientzat.

Horretarako, Nafarroako Foru Komunitateko erakunde eta entitate publiko guztiek behar diren neurriak hartu behar dituzte honako xede hauetarako:

a) Ahal den guztian erraztea eta aldezte giza eskubideen urraketaren analisia eta dokumentazioa, bai eta horri buruz aurkeztutako eskabideak ere, halatan foru lege hau bideratuko duten ebazpen administratiboak errazte aldera.

b) Motibazio politikoko biktimei erreparazioa eta errehabilitazioa ematea, haien ikusgaitasuna

erraztuz, haien duintasun eta borondatearekiko errespeturik handienarekin, eta neurriak hartuz pairatutako kalteak aritze aldera, ahal den neurrian.

c) Nafarroako gizartean sustatzea Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako balioak, eta bakearen aldeko kultura bat sustatzea, giza eskubideen urraketen larritasunari buruzko ezagutza eta gogoeta bultzatuz, foru lege honetan aurreikusitako giza eskubideen urraketen biktimekiko errekonozimendu instituzionalaren eta sozietatearen bitartez.

2. Azkartasunaren printzipioa, eskubideen aitortzea eta erreparazioa beharrik gabe luzatzen edo zailtzen dituzten izapide formalak saihestuz. Administrazioak ezin izanen dio interesdunari dokumentaziorik eskatu, baldin eta horrekin frogatu nahi badira nabariak diren gertakariak edo halako inguruabarrak zeinen frogak kasuko izapideez arduratzen ari den administrazioaren artxiboetan edo aurrekarietan jadanik jasota baitaude.

3. Diskriminazio-ezaren eta biktimen aldeko tratua printzipioa. Kontuan hartuko da haiek nolako zaurgarritasun- eta desparekotasun-egoera berezian egon daitezkeen, eta behar diren neurriak hartuko dira prozedurak ez dezan sor prozesu traumatiko gehiagorik.

4. Herritarren parte hartzearen eta ezagutzearen printzipioa. Halatan, lankidetzan arituko dira botere publikoak eta giza eskubideen, memoriaren sustapenaren edo bizikidetzaren demokratikoaren arloetako eskumenak dituzten Nafarroako Gobernu organo eta erakundeak, ekarpena egitearren foru lege honen ardurakoak diren giza eskubideen urraketen egia historikoari buruzko ezagutzarako.

5. Hirugarrenen eskubideak bermatzearen printzipioa. Foru lege honen babesean izapidetutako espediente administratiboek ez dute inolaz ere ekarriko hirugarrenen berme juridiko eta konstituzionalen aurkako urraketarik edo erasaterik.

6. Prozedura administratiboa prozedura penalarren subsidiarioa izatearen printzipioa. Foru lege honetan ezarritako prozedura administratiboak ez du zigor-xederik, eta berme osoz errespetatzen ditu abstentzioaren, konkurrentziaren eta ebazpen judizialekiko loturaren eginbehar eta betebeharrak.

II. KAPITULUA

Egia, errekonozimendua eta erreparazioa

6. artikulua. Egitarako eskubidea.

Nafarroako botere publikoek, foru lege honen aplikazio eremuan, giza eskubideen eta memoria-

ren sustapenaren arloetako eginkizunak betetzen dituzten Nafarroako Gobernu organo eta erakundeekin lankidetzan jardunen dute, nor bere eskumenen esparruan ekarpena egite aldera foru lege honen ardurako giza eskubideen urraketek buruzko egia ezagutzearen alde, ekintza batzuen bidez, pertsonen artxibo ofizialeterako sarbidea errazteko eta foru lege honen ardurako giza eskubideen balizko urradurak aztertze.

Nafarroako botere publikoek, beren eskumenen esparruan, laguntza emanen dute foru lege honen babesean biktima deklaratuak diren pertsonen informazioa izan dezaten eskura dauden baliabideei buruz eta, kasua bada, dagozkion prozesu judizialak kasu zehatz bakoitzean irekitzea ahalbidetuko duena ere bai.

Edonola ere, Errekonozimendu eta Erreparazioarako Batzordearen iritziz espediente irekitzeko ondorioztatu ahalko balitz legez kontrako jarduketaren bat, organo judizialei jakinaraziko die eta horren berri emanen die eskumena duen administrazioari.

Aurkeztutako eskariaren onespenearekin amaitzen diren espediente administratiboak Memoriaren Institutuari igorriko zaizkio, berak bere eskumeneko politikak garatu ditzan, betiere datuen babesari buruzko legeria betez.

7. artikulua. Errekonozimendurako eskubidea.

1. Foru lege honen ondoretarako, motibazio politikoko indarkeriako testuinguru batean gertatutako giza eskubideen urraketek biktima deklaratuak berekin ekarriko du, betiere, biktima-izaeraren errekonozimendu publikorako eskubidea. Errekonozimendu publiko horrek bateragarria izan behar du biktimak bere intimitatea babesteko daukan eskubidearekin, berariaz hala eskatu duenean.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek neurri aktiboak bultzatuko dituzte, bermatuko dutenak, biktimekiko errespetu eta dignifikazio handienarekin eta ekitaldi, sinbolo edo antzeko elementuen bitartez, foru lege honetan aurreikusitako giza eskubideen urraketek biktimen oroitzapena eta errekonozimendua.

8. artikulua. Erreparazioarako eskubidea.

Foru lege honen ondoretarako, eta bere aplikazio-eremuan, erreparazioarako eskubideak kalteordain ekonomikoa bilduko du, bai eta, kasua bada, gertatutako giza eskubideen urraketek ondorioz pairatutako kalteak gainditu edo arintzeko osasun-arreta ere.

III. KAPITULUA Prozedura

9. artikulua. Prozedura abiaraztea.

1. Eskabideak foru lege honen esparru subjektiboan aipatzen diren pertsonak sustatu eta aurkeztu ahalko dituzte. Legitimazio aktiboa izanen dute, halaber, aipatutako esparrukoak izan ez arren foru lege honen aplikazio eremuan sartzen diren egitateak zuzenean eta zorrozki ezagutu dituzten pertsonak.

2. Foru lege honen arabera motibazio politikoko biktimaren izaera deklaratzeko eskabideak arloan eskuduna den Nafarroako Gobernuaren departamentuari zuzenduko zaizkio –gaur egun Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiari–, eta horrek helaraziko dizkio haiek aztertzeko eskudun den organo administratiboari, zeina, foru lege honen arabera, Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordea baita.

3. Eskabidean gertakariaren deskribapen ahalik eta zehatzena jaso beharko da, eta, harekin batera, egokitzat jotzen diren dokumentu edo txosten guztiak aurkeztu ahalko dira; hala ere, hori ez da eragozpena izan Batzordeak haiek dokumentatu eta egiaztatzeko egin ditzakeen jarduketa eta zuzemenetarako.

10. artikulua. Prozeduraren instrukzioa.

1. Eskabidea jasota, Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeak hilabeteko epean ebatzi beharko du hura izapidetzeko onartzen duen ala ez.

2. Behin eskabidea izapidetzeko onartuta, Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeak, bere eginkizunak betetzeko eta egokitzat jotzen duen guztietan, honako jarduketa hauetakoren bat egin ahalko du:

a) Eskatzaileari entzun, aurkeztu dituen dokumentu edo txostenei buruzko informazioa osoagotzeko. Ondore horietarako, eskatzaileari hitzordua emanen dio Batzordearen egoitzan edo harekin adostutako tokian elkarrizketa bat egiteko, betiere haren bizilekuarekiko hurbiltasun geografikoaren printzipioari jarraituz. Elkarrizketa horren akta eginen du Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordearen idazkaritza teknikoak, eta deklarazioa ikus-entzunezko baliabideekin grabatu ahalko da, eskatzailea horrekin ados egonez gero.

b) Nafarroako Gobernuaren menpeko departamentu edo erakundeetan egon litezkeen aurrekari, datu edo txostenak eskuratu, bai eta haien berri

jasota egon litekeen Foru Administrazioaren beste erregistro publiko batzuetatik ere.

c) Beste entitate publiko, entitate edo organo pribatu zein publikoei informazioa eskatu, espedienteak izapidetzeko beharrezko izan daitezkeen aurrekari, datu edo txostenei buruz, betiere garrantasunari eta datuen babesari buruzko legeria indardunean finkatutako mugen barruan.

d) Egitateen zuzeneko nahiz zeharkako ezagutzarengatik, beren esperientziarengatik edo peritu tekniko izateagatik eskabide aurkeztuari buruz informazio garrantzitsua eman dezaketen pertsonen txostena edo lekukotasuna eskatu. Haien deklarazioa ere grabatu ahalko da.

e) Argudiatutako egitate, inguruabar eta ondorioak modurik onenean aztertu eta egiaztatzeko eta aurkeztutako eskabidea hobeki ebatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak egin.

3. Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordearen helburuak betetzearekin lotuta dauden entitate publiko eta pertsona pribatuak eskatzen zaien laguntza eman beharko dute, foru lege honen babesean izapidetutako espedienteen esparruko egitateen azterketa errazte aldera. Horri dagokionez, behar diren denboran eta moduan eman beharko dituzte eskatzen zaizkien datu guztiak nahiz teknikarien laguntza, eta, deitzen bazaie, Batzordearen aurrean agertuko dira, informazio-eskakizunei zuzenean erantzuteko.

4. Batzordeak, bere eskumenen eremuan, beharrezkotzat jotzen dituen harremanak eduki ahalko ditu edozein agintarirekin nahiz agintaritza-agenterekin; Batzordeak, halaber, informazioak trukatu ahalko ditu erakunde eta entitate publiko eta pribatuekin, bai eta haien lankidetzaren izan ere.

5. Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeak jakiten duenean irekitako kausa judizialak badaudela, espedientea ebatztearen ardura duen organoak eten egingen du prozeduraren izapidetzea bide judiziala agortu arte. Etete bera gertatuko da irekitako zehapen-prozedura administratiborik badagoela jakiten denean, harik eta haiek bide administratiboan irmoak izan arte.

6. Espediente bakoitzean txosten tekniko bat egon beharko da, Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeko kide diren Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuko gutxienez ere bi peritu forentsek eginga, zeinean, batzorde horrek esleituta dauzkan eginkizunen esparruan, iritzia emanen baitute alegatutako tratu txarrak edo lesioak eta egitate kausatzaileak bateragarriak izateari buruz. Baliaezintasun handiaren eta ezin-

tasun iraunkor partzialaren, erabatekoaren edo absolutuaren kasuan, hura agintari eskudunak emandako ziurtagiri baten bidez egiaztatuta, kasuko txosten teknikoek iritzia eman beharko dute egiaztatutako lesio horiek espediente bakoitzaren esparruan alegatutako egitateekin daukaten lotura-mailari buruz. Txostenak ondorioztatzen duenean balioezintasuneko edo ezintasun iraunkorreko gradu jakin bat badagoela, baina hura agintari eskudunak emandako ziurtagiri batez egiaztatutik ez dagoenean, Batzordeak ziurtagiri horiek lortzeko prozeduraren berri emanen du.

7. Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeari dagokio, modu eksklusiboan eta independentean, arrazoiak emanda proposatzea eskaerak ez daitezen izapidetzeko onartu, bai eta onartutako eskaerak analizatzea eta, arrazoiak emanda, biktima-izaeraren deklarazioaren proposamena onartzea edo aurkeztutako eskaera ukatzea ere.

11. artikulua. Eskabideak ebaztea.

1. Espedientean jasotako dokumentazioa eta gainerako frogabideak aztertu ondoren, aurkeztutako eskabide bakoitzari buruzko txosten arrazoitu bat egingen du Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeak, eta bertan aztertuko du ea foru lege honen aplikazio-eremuan ezarritako baldintzak betetzen diren; laburpen bat egingen du biktimaren giza eskubideen urraketa eragin zuten egitatei buruz; balorazio bat jasoko du egitateen eta egiaztatutako kalteen arteko kausazko loturari buruz, horretarako oinarri gisa darabiltzan frogabideak zehaztuta; eta proposatuko du, kasua bada, foru lege honen ondorioei dagokienez biktima deklaratzeko, bai eta egokitze jotzen diren erreparazio-neurriak ere.

Aipatutako txostena eskabidea jaso eta urtebeteko epean egin beharko da, salbu eta epe horren luzapen arrazoitua justifikatzen duten salbuespeneko inguruabarrak badaude.

2. Egindako txostena bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko eskumenak dituen arduradunari igorriko zaio, eta horrek, hiru hilabete gehieneko epean, kasuko ebazpena emanen du, eskabidea baietsi edo ezetsiko duena.

3. Ebazpena hilabeteko epean jakinaraziko zaio interesdunari, eta, kasua bada, bidezko diren errekurtsioak aurkezteko aukera adieraziko zaio.

4. Bidezkoa denean foru lege honetan aurreikusitako eskubideen urraketak pairatu dituen pertsonari biktima-izaera aitortzea, ebazpenak zehaztuko du zein diren aitorten horretatik eratorzen diren eskubideak, kasuan-kasuan.

12. artikulua. Biktima deklaratzearen ondorioak.

1. Foru lege honen xedapenen arabera biktima deklaratuak diren pertsonak aitortuta edukiko dituzte, osasun arretaz gainera, kalte fisiko edo/eta psikologikoengatik eta kalte materialengatik ordain ekonomikoak.

2. Horretarako, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legean eta lege hori garatzen duten arauetan xedatutakoari jarraituko zaio.

IV. KAPITULUA **Errekonozimendu eta** **Erreparaziorako Batzordea**

13. artikulua. Sorrera.

1. Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordea sortzen da, kide anitzeko organo independente gisa. Honako eginkizun hauek izanen ditu: aurkeztutako eskabideak baloratu eta, foru lege honen babesean, eskabideak onar daitezen edo bazter daitezen proposatzea; eta, bidezkoa denean, biktima-izaeraren deklarazioa eta, kasua bada, erreparazio-neurriak proposatzea.

2. Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordea Nafarroako Gobernuak bakearen, bizikidetasunaren eta giza eskubideen arloko departamentu eskudunari atxikiko zaio organikoki, eta foru lege honek esleitzen dizkion eginkizunak betetzean autonomiaz eta independentzia osoz jardunen du, eta dituen eginkizunak objektibotasunez, profesionaltasunez, osotasunez, inpartzialtasunez, konfidentzialtasunez eta ordenamendu juridikoa errespetatuz bete beharko ditu.

14. artikulua. Osaera.

1. Batzordea bederatzi kidek osatuko dute, horrela banatuta:

a) Sortzetiko kide izanen dira bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan eskudun den zuzendaritza nagusiko burua eta Nafarroako Memoriaren Institutuko burua, edo antzeko organismoetako buruak.

b) Bi peritu forentse eta psikologo bat, Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuak aukeratuak, guztiak ere biktimen arloan esperientzia dutenak.

c) Gainerako kideak Parlamentuak hautatuko ditu beren eskubide zibil eta politikoen erabilera erabatekoa izan eta karguan jarduteko behar diren egokitasun-, zintzotasun-, kualifikazio- eta esperientzia-baldintzak betetzen dituzten herritar adindunen artean.

2. Aukeraturiko pertsonak Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak gehiengo osoz hautatuko ditu sei urteko aldi baterako.

3. Kargurako hautagaiak talde parlamentarioek edo/eta giza eskubideen eta memoriaren arloko jarduera Nafarroako Foru Komunitatean garatzen duten gizarte-erakundeek proposatuko dizkiote Nafarroako Parlamentuari.

15. artikulua. Izendapena eta karguaz jabetzea.

1. Giza eskubideen arloko departamentu eskuduneko titularrak emandako foru aginduaren bidez izendatuko dira aurreko artikuluan aurreikusitako moduan aukeratutako Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeko kideak.

2. Izendatutako pertsonen izendatzea argitara ematen den egunetik ondoko hogeita hamar egun naturalen barruan hartuko dute beren karguen jabetza.

16. artikulua. Antolaketa eta funtzionamendua.

1. Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordearen eraketa baliozkoa izan dadin, bilkura eta eztabaidak egin eta erabakiak hartzeari dagokionez, beharrezkoa izanen da haren kideetatik bost bertaratuta egotea, gutxienez ere. Erabakiak hartuko dira bertarutzen diren kideen gehiengoaren botoaz. Berdinketarik gertatuz gero, batzordeburuaren kalitatezko botoa izanen da erabakigarri.

2. Batzordeko lehendakaritza eta idazkaritza kideen artetik hautatuko dira, gehiengoaz, Batzordearen eratze-bilkuran.

3. Batzordeko kideek eskatu ahalko dute aktan jaso dadila hartutako erabaki baten aurka eman duten botoa, edo alde eman duten botoaren zentzua. Halaber, kideren bat gehiengoak hartutako erabakiarekin ados ez dagoenean, boto partikular bat aurkeztu ahalko du idatziz, erabakia hartu eta bi eguneko epean, eta hura testu onetsiari gehituko zaio.

4. Batzordeari dagokio funtzionamendurako barne arauak onestea.

5. Batzordeko kideek eskubidea izanen dute haiek Kontseiluaren lan bilkuretara joatearen eta txostenak egiten parte hartzearen ordainetan mantenu-sariak jasotzeko, erregelamenduz ezarriak. Egun bakoitzeko ez da sortuko mantenu-sari bat baino gehiagorako eskubiderik.

6. Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeko kideek, horri buruz aplikatzekoa den

araudiari jarraituz, Nafarroako Foru Komunitateko bi hizkuntza ofizialetatik edozein erabili ahalko dute bilkuretan. Halaber, bermatuko da bilkuretarako deialdietan, gai-zerrendetan, aktetan eta Errekonozimendu eta Balorazio Batzordeak egiten dituen idazkietan Nafarroako Foru Komunitateko bi hizkuntza ofizialak erabiltzen direla.

17. artikulua. Baliabideak.

1. Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeak esleitzen zaizkion eginkizunak eraginkortasunez betetzeko behar diren baliabide ekonomiko, material eta pertsonal egokiak eduki beharko ditu. Nafarroako Gobernuak bermatuko ditu baliabide horiek.

2. Batzordeak zilegi izanen du espezialisten eta beren eskumenen eremuko gaietan peritu edo aditu direnen zerbitzuak eskatzea. Zerbitzu espezializatu horiek Batzordeko gainontzeko langileek bete beharreko zintzotasun, neutraltasun, erantzukizun, inpartzialtasun eta konfidentzialtasun araubide berari lotuta egonen dira.

18. artikulua. Jardueraren oroitidazkia.

Urtero, Batzordeak oroitidazki bat prestatu eta argitaratuko du, eta hartan berri emanen du jasotako eskabideei, egindako lanei, espedienteen egoerari eta egindako ebazpen-proposamenei buruz. Oroitidazki hori Nafarroako Parlamentuari aurkeztuko zaio, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen gaian eskuduna den batzordean.

V. KAPITULUA

Prestazioa jasotzen duten pertsonen betebeharrak

19. artikulua. Giza eskubideen urraketaren biktimen betebeharrak.

Giza eskubideen urraketaren biktimek honako betebeharrak hauek izanen dituzte:

a) Une oro onartzea giza eskubideen arloko eskumena duen organismoak egiazta dezala aurkeztutako datu eta dokumentuak, eta eskatzen zaion informazio guztia ematea, espedientea kontrolatu eta osatzearen ondorioetarako.

b) Onuradun izaera lortzeko araudi orokorrean ezarritako betekizunak betetzea, bai eta aipatutako araudian horretarako ezarritako betebeharrak ere, biktimaren deklarazioak berekin dakarrenean foru lege honetan jasotako kalte-ordain ekonomikorako errekonozimendua.

c) Entitate emaileak egin beharreko egiaztatze-jarduketan eta Foru Ogasunari dagokion kontrolaren pean jartzea, Nafarroako Foru Komunitateko

aurrekontu orokorren kargura jasotako laguntzak direla eta.

20. artikulua. Baldintzak eta betekizunak ez betetzea.

Giza eskubideen urraketaren biktimak foru lege honetan ezarritako baldintzak ez betetzeak edo aurkeztutako datuak faltsuak izateak berekin ekarriko dute biktimaren errekonozimendu galtzea eta, kasua bada, aitortutako kalte-ordain ekonomikoa edo prestazioak galtzea; horretarako, aurrez, kasuko espedienteak irekiko da, eta interesdunei entzunaldia emanen zaie. Horrek berekin ekarriko du Foru Ogasunari itzuli behar izatea jasotako kopuruak, gehi dagozkien legezko interesak, bidezko diren gainerako ekintzak ezertan eragotzi gabe.

VI. KAPITULUA

Bakearen eta bizikidetzaren kultura sustatzea

21. artikulua. Txostenak eta konklusioak.

Batzordeak bere jarduketari buruzko urteko oroitidazkiak igorriko dizkio Memoriaren Institutuari edo bakearen, memoriaren eta bizikidetzaren arloan eskuduna den antzeko erakundeari. Oroitidazki horietan eta foru lege honi dagokion gaiari buruz garatu ahal izan dituen gai osagarrietan oinarrituta, aipatutako organismoak, Batzordea eratu eta gehienez ere lau urteko epean, bi txosten orokor egingen ditu. Lehenbizikoak 1950eko urtarrilaren 2tik 1978ko abenduaren 28ra bitarteko epea hartuko du, eta bigarrenak, berriz, azken egun horretatik gaur egundainokoa. Txosten horiek Nafarroako Parlamentuari aurkeztuko zaizkio.

22. artikulua. Bakerako eta bizikidetasunerako hezkuntza.

Bakearen eta giza eskubideen aldeko urteroko heziketa programan eta hezkuntzaren arloko departamentu eskudunak garatutako programetan foru lege honek jasotako helburu eta printzipioak txertatuko dira.

23. artikulua. Sentsibilizazioa.

Nafarroako Gobernuak ziklo, ikastaro, mintegi edo biltzarrak jarriko ditu abian, gizarte zabalari informazioa eman eta gogoeta egite aldera motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan gerta-

tzen diren giza eskubideen urraketan larritasunari eta garrantziari buruz.

Lehen xedapen gehigarria. Giza baliabideak eta baliabide materialak.

1. Nafarroako Gobernuak biktimen Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordearen funtzionamendua finantzatuko du, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan urtero berariazko partida bat ezarri.

2. Nafarroako Gobernuak bermatuko du Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeak bere funtzionamendurako behar dituen giza baliabideak eta baliabide materialak edukitzea.

Bigarren xedapen gehigarria.

1. Nafarroako Gobernuak behar diren xedapenak emanen ditu foru lege honetan xedatua garatu eta aplikatzeko eta, bereziki, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legean ezarritako kalte-ordain eta laguntzak haren helburuetara egokitzeko, behar diren modulazioak ezarrita.

2. Nafarroako Gobernuak bere eskumenen esparruan xedatuko du beharrezkoak diren kredituak gaitzea foru lege honetan ezarritako laguntzei aurre egin ahal izateko.

Hirugarren xedapen gehigarria. Erregelamendu bidezko garapena.

Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabete epean, Nafarroako Gobernuak behar diren erregelamenduzko xedapenak emanen ditu arau honetan jasotako aurreikuspenak garatzeko.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari kontra egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak, eta, zehazki, apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legea, Esquin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duena.

LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 139.3 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena. Proposamen hori 2019ko otsailaren 12ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

IRIZPENA

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak 2019ko martxoaren 26an egindako bileran onetsia.

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baitira Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Lege onetsi berriak aldaketa handinahi bati hasiera eman dio, orain ezagutzen dugun Nafarroako Administrazio Publikoa berrantolatzea ekarriko duena, eskualdeen figura berria sortu baita. Legea taxutzeko ibilitako parte-hartze prozesu luzea gorabehera, funtsezko zenbait alderdiri ez zitzaion behar adinako tratamendurik eman; esate baterako, Administrazioan zerbitzu ematen duten langileen arloan egon litezkeen afekzioei erantzuteko beharrezkoak diren babes-neurriei. Hori da, hain zuzen ere, testu honen bidez zuzendu nahi dena.

Lehen artikulua. Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 360. artikuluari 5. paragrafoa gehitzen zaio. Hona hemen testua:

“Batzorde Teknikoaren baitan Langileen Azpibatzerdea eratuko da, eskualdeak eratzeko

prozesuak ukitutako toki entitateen ordezkariak eta Batzorde Teknikoaren parte izateko izendatutako ordezkariak sindikalak osatua; azpibatzerde horrek, nahitaez egin behar duen txostena idatzi aitzin, kasuko eskualdean sar litezkeen toki administrazioetako bakoitzeko lanpostuen zerrendaren zentsua ezagutuko du, bai eta eskualde bakoitzak langileen arloan izan litzakeen beharrezkoak, plantilla organikoari eta zerbitzuei buruzko aurreikuspena etorkizunari begira, lan- nahiz ordainsari-baldintzak eta enplegatuen publikoen lan-baldintzei eragiten ahal dien beste edozein auzi ere. Azpibatzerde horren txostena eranskin gisa gehituko zaio Batzorde Teknikoak Nafarroako Gobernuarentzat idazten duen txostenari”.

Bigarren artikulua.

Bat. Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarria aldatzen da; hain zuzen ere, apartatu hau eranstean zaio in fine:

“Aurreko apartatuetan aipatzen den izangaien zerrendak lehentasuna izanen du aipatu eginkizunak baliatze aldera foru lege hau indarrean sartzen den egunean indarrean egon daitekeen beste edozeinen aldean”.

Bi. Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarria aldatzen da; hain zuzen ere, paragrafo hau eranstean zaio in fine:

“Foru lege honek ukitutako toki entitateek ezin izanen dute legea indarrean sartzen den egunean indarrean dagoen kontraturik deuseztatu, arrazoi ekonomiko, tekniko, antolamenduzko edo ekoizpenekoetan oinarrituta”.

Hiru. Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen hirugarren xedapen iragankorra aldatzen da; hain zuzen ere, honako testu hau sartuko da lehendabiziko paragrafoaren ondoren:

“Egungo administrazio zerbitzuen batasunak toki entitate gisa mantenduko dira 4/2019 Foru Legea indarrean sartu aurreko araubide juridikokan, baldin eta eratu gabe badaude horiek ordezkatzeko dituzten eskualdeak, bere eskumenak eta langileak bere gain hartu gabe, eta zerbitzuak emateko moduan”.

Lehen xedapen gehigarria. Xedapen gehigarri berri bat gehituko da. Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeko izenak.

1. Honako aldaketak egingen dira Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen eranskinetan:

– *Pamplona* eta *Iruña* izeneko eskualdeak izen hau izanen du: *Comarca de Pamplona* eta *Iruñerria*.

– *Lizarraldea* izeneko eskualdeak izen hau izanen du: *Estellerria*.

– *Lizarraldeko Erribera* izeneko eskualdeak izen hau izanen du: *Estellerriko Erribera*.

– *Jurramendi* izeneko eskualdeak izen hau izanen du: *Montejurra*.

2. Izen ofizial elebidunen kasuan, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen eranskinen gaztelaniazko bertsioan, gaztelaniazko izenarekin batera, euskarazko izena kasu guztietan adieraziko da, eta, horretarako, aplikatuko diren irizpideak izanen dira Nafarroako biziguneeen izenak erabiltzeko eta haiek grafikoki adierazteko irizpideak ezartzen dituen otsailaren 28ko 5/2018 Foru Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoak.

3. Eskualdeak, azpieskualdeak eta herriak alfabetikoaren arabera ordenatuko dira, bai gaztelaniazko bertsioan bai eta euskarazkoan ere.

4. Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen I, II. eta III. eranskinak, aurreko idatz-zatietan ezarritakoa aplikatuta aldatzen dira.

I. eranskina

ESKUALDEA: "Baztan-Bidasoa"

UDALERRIA	POPULAZIOA 2017
ARANTZA	623
BAZTAN	7.736
BEINTZA-LABAIEN	232
BERA	3.763
BERTIZARANA	591
DONAMARIA	434
DONEZTEBE	1.732
ELGORRIAGA	203
ERATSUN	154
ETXALAR	808
EZKURRA	154

IGANTZI	626
ITUREN	519
LESAKA	2.737
OIZ	130
SALDIAS	119
SUNBILLA	675
URDAZUBI	394
URROZ	185
ZUBIETA	308
ZUGARRAMURDI	232
	<hr/>
	22.355

ESKUALDEA: "Erdialdea"

UDALERRIA	POPULAZIOA 2017
BARASOAIN	650
BEIRE	298
CAPARROSO	2.724
ERRIBERRI	3.927
GARINOAIN	456
LEOTZ	232
MÉLIDA	718
MURILLO EL CUENDE	659
MURILLO EL FRUTO	603
OLORITZ	198
ORISOAIN	85
PITILLAS	492
PUIU	340
SAN MARTÍN UNX	383
SANTAKARA	868
TAFALLA	10.638
UNTZUE	136
UXUE	171
ZARRAKAZTELU	2.491
	<hr/>
	26.069

ESKUALDEA: "Erribera"

UDALERRIA	POPULAZIOA 2017
ABLITAS	2.514
ARGUEDAS	2.300
BARILLAS	218
BUÑUEL	2.232
CABANILLAS	1.366
CASCANTE	3.780
CASTEJÓN	4.116
CINTRUÉNIGO	7.839

CORELLA	7.640	ABERIN	358
CORTES	3.137	AGUILAR KODES	72
FITERO	2.034	AIEGI	2.346
FONTELLAS	963	ALLIN	853
FUSTIÑANA	2.466	ALLO	980
MONTEAGUDO	1.078	AMESKOABARRENA	750
MURCHANTE	3.944	ANTZIN	357
RIBAFORADA	3.704	ARANARATXE	74
TUTERA	35.298	ARELLANO	159
TULEBRAS	123	ARMAÑANTZAS	60
VALTIERRA	2.384	ARROITZ	1.044
	87.136	AZUELO	34
		BARBARIN	58
		BARGOTA	276
		CABREDO	101
		DEIERRI	1.513
		DEIKAZTELU	612
		DESOIO	79
		EL BUSTO	62
		ESPRONTZEDA	108
		ESTELLA-LIZARRA	13.707
		ETAIU	70
		EULATE	289
		GENEVILLA	76
		GESALATZ	454
		IGUZKITZA	338
		JAITZ	113
		LANA	166
		LAPOBLACIÓN	125
		LARRAGOA	104
		LEGARIA	98
		LEZAUN	252
		LOS ARCOS	1.104
		LUKIN	128
		MARAÑÓN	51
		MENDAZA	301
		METAUTEN	285
		MIRAFUENTES	56
		MORENTIN	126
		MUES	82
		MURIETA	334
		NAZAR	39
		OKO	77
		OLEXOA	53
		OTEITZA	922
		PIEDRAMILLERA	37
ESKUALDEA: "Erriberagoiena"			
UDALERRIA	POPULAZIOA 2017		
ALESBES	2.845		
AZAGRA	3.843		
AZKOIEN	5.828		
CADREITA	2.028		
FALTZES	2.313		
FUNES	2.482		
MARTZILLA	2.828		
MILAGRO	3.400		
	25.567		
ESKUALDEA: "Estellerra"			
AZPIESKUALDEA: "Estellerriko Erribera"			
UDALERRIA	POPULAZIOA 2017		
ANDOSILLA	2.718		
ARAS	163		
CÁRCAR	1.038		
ELIZAGORRIA	193		
LERIN	1.654		
LODOSA	4.730		
MENDABIA	3.570		
SAN ADRIÁN	6.214		
SARTAGUDA	1.316		
SESMA	1.152		
VIANA	4.078		
	26.826		
AZPIESKUALDEA: "Montejurra"			
UDALERRIA	POPULAZIOA 2017		
ABAIGAR	88		
ABARTZUZA	524		

SANTSOL	102	IRUÑA	197.138
SORLADA	52	NOAIN (ELORTZIBAR)	8.115
TORRALBA DEL RÍO	110	ORKOIEN	3.910
TORRES DEL RÍO	128	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	613
VILLAMAYOR DE MONJARDÍN	115	UHARTE	6.917
VILLATUERTA	1.178	ZIZUR	3.784
ZUÑIGA	108	ZIZUR NAGUSIA	14.686
	<hr/> 58.514		<hr/> 348.337

ESKUALDEA: "Iruñerria"
AZPIESKUALDEA: "Ibarrak"

UDALERRIA	POPULAZIOA 2017
ANUE	477
ATETZ	227
BERASKOAIN	123
BIDAURRETA	169
ESTERIBAR	2.629
ETXARRI	80
ETXAURI	602
EZKABARTE	1.797
GOÑI	169
ITZA	1.192
LANTZ	153
ODIETA	362
OLAIBAR	363
OLLARAN	399
OLTZA ZENDEA	1.853
TXULAPAIN	550
ULTZAMA	1.661
ZABALTZA	294
ZIRITZA	137
	<hr/> 13.237

AZPIESKUALDEA: "Metropolialdea".

UDALERRIA	POPULAZIOA 2017
ANTSOAIN	10.752
ARANGUREN	10.239
ATARRABIA	10.217
BARAÑAIN	20.124
BERIAIN	3.894
BERRIOBEITI	6.872
BERRIOZAR	9.874
BURLATA	18.591
EGUESIBAR	20.417
GALAR	2.194

ESKUALDEA: "Izarbeibar-Novenera"

UDALERRIA	POPULAZIOA 2017
ADIOS	155
AÑORBE	543
ARTAXOA	1.658
ARTAZU	117
BERBINZANA	605
BIURRUN-OLKOTZ	207
ENERITZ	293
GARES	2.805
GIRGILLAO	76
LARRAGA	2.060
LEGARDA	110
MAÑERU	422
MENDIGORRIA	1.044
MIRANDA ARGA	855
MURUZABAL	241
OBANOS	906
TIRAPU	45
UKAR	183
UTERGA	164
ZIRAUKI	478
	<hr/> 12.967

ESKUALDEA: "Larraun-Leitzaldea"

UDALERRIA	POPULAZIOA 2017
ARAITZ	523
ARANO	110
ARESO	261
BASABURUA	850
BETELU	346
GOIZUETA	717
IMOTZ	430
LARRAUN	974
LEITZA	2.856
LEKUNBERRI	1.502
	<hr/> 8.569

ESKUALDEA: "Pirinioak"		ESKUALDEA: "Sakana"	
UDALERRIA	POPULAZIOA 2017	UDALERRIA	POPULAZIOA 2017
ABAURREGAINA	124	ALTSASU	7.419
ABAURREPEA	34	ARAKIL	947
ARIA	53	ARBIZU	1.119
ARIBE	41	ARRUAZU	101
AURITZ	244	BAKAIKU	345
BIDANKOZE	95	ERGOIENA	399
BURGI	209	ETXARRI ARANATZ	2.464
ERRO	789	IRAÑETA	174
ERRONKARI	213	IRURTZUN	2.183
ESPARTZA-ZARAITZU	79	ITURMENDI	398
EZKAROZE	313	LAKUNTZA	1.262
GALOZE	104	OLAZTI	1.518
GARAIOA	89	UHARTE ARAKIL	828
GARDE	148	URDIAN	671
GARRALDA	184	ZIORDIA	357
GORZA	44		20.185
HIRIBERRI	110		
ITZALTZU	48		
IZABA	429		
JAUURIETA	186		
LUZAIDE	387		
NABASKOZE	145		
ORBAIZETA	200		
ORBARA	38		
ORONTZE	48		
ORREAGA	21		
OTSAGABIA	534		
SARTZE	64		
URZAINKI	85		
UZTARROZE	146		
	5.204		
ESKUALDEA: "Pirinioaurrea"		ESKUALDEA: "Zangozeria"	
UDALERRIA	POPULAZIOA 2017	UDALERRIA	POPULAZIOA 2017
AGOITZ	2.561	ERROMANTZATUA	180
ARTZI	271	ESA	291
ELO	479	ESLABA	118
IBARGOITI	247	EZPOROGI	44
IZAGAONDOA	183	GALIPENTZU	99
LIZOAIN-ARRIASGOITI	295	GAZTELUBERRI	17
LONGIDA	303	IRUNBERRI	1.336
OROTZ-BETELU	149	KASEDA	975
		LEATXE	35
		LEDEA	301
		LERGA	70
		OIBAR	800
		PETILLA ARAGOI	34
		XABIER	102
		ZANGOZA	5.002
		ZARE	151
			9.555

II. eranskina - Eskualdekako datu-laburpena

Baztan-Bidasoa	Udalerri kopurua POPULAZIOA 2017	21 22.355
Erdialdea	Udalerri kopurua POPULAZIOA 2017	19 26.069
Erribera	Udalerri kopurua POPULAZIOA 2017	19 87.136
Erriberagoiena	Udalerri kopurua POPULAZIOA 2017	8 25.567
Estellerría	Udalerri kopurua POPULAZIOA 2017	66 58.514
Iruñerría	Udalerri kopurua POPULAZIOA 2017	36 361.574
Izarbeibar-Novenera	Udalerri kopurua POPULAZIOA 2017	20 12.967
Larraun-Leitzaldea	Udalerri kopurua POPULAZIOA 2017	10 8.569
Pirinioak	Udalerri kopurua POPULAZIOA 2017	30 5.204
Pirinioaurrea	Udalerri kopurua POPULAZIOA 2017	12 5.539
Sakana	Udalerri kopurua POPULAZIOA 2017	15 20.185
Zangozerría	Udalerri kopurua POPULAZIOA 2017	16 9.555
Udalerri kopurua, guztira		272
POPULAZIOA 2017, guztira		643.234

Bigarren xedapen gehigarria. Gehiengo osoko foru legea.

Foru lege hau gehiengo osokoa da, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erre-

gelamenduaren testu bateginaren 152. eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena.

OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko martxoaren 21ean, erabaki du aintzat ez hartzea Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena, zeina Carlos Couso Chamarro jaunak aurkeztu baitzuen eta 2019ko martxoaren 15eko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2019ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza
